



MUNDUTIK MUNDUA ARABAKO HITZONTZI BATEN KRONIKAK

Edu Zelaieta Anta

Upaingo 37
ISBN: 978-84-9172-097-3
Urtea: 2018 / 128 or.
13x19 cm

12,00 €

Orduan konturatu naiz Eduren testuak irakurri bitartean barruan sortu zaidan sentipen bat argitu didala alabak. Irakurketarekin barruan sortzen ari zitzaidan argazkia errebelatu egin du nahi gabe, berriz modan jarri diren Polaroid horietako batekin bezala. Zergatik iruditzen zaigu handia, zergatik maiuskulaz idatzi beharrekoa, gure egunerokotik urrun dagoena, azkenean ume baten eskuetan kabitzen bada? Eta zergatik deitzen diogu mundu txikia gure inguruan dagoenari, urrun dagoena baino askoz handiagoa ikusten badugu?

Bere mundutik idatzi du Eduk, munduaz. Eta idazleen eginbeharra hain zuzen hori dela gogorarazi digu; gertu izanagatik txiki deitzen diogun horren berri ematea dela, alegia, idazleak mundu handi eta unibertsalari buruz hitz egiteko duen modu eraginkor bakarra.

[Karmele Jaio]

• • •



Edu Zelaieta Anta

(Gasteiz, 1973)

Irakaslea, idazlea eta itzultzailea.

Euskaltegian, ikastolan eta unibertsitatean aritu da irakasle; gaur egunean, EHUko Hezkuntza eta

Kirol Fakultatean dihardu, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren sailean.

Idazle-lanari dagokionez, poesian nabarmendu da batez ere, eta lau liburu eman ditu argitara: *Jendakiak urruneko familiatan* (2002), *Mugaldekoak* (2004), *Aldaira urdinak* (2010) eta *Ispilu biluziak* (2016). Bigarren liburutik jalgi zen *Mugaldekoak* taldea, eta hiru disko publikatu ditu literaturaren eta musikaren arteko uztardura baliatuta: *Biziago sentitzeak dakarren muga inguruan* (2006), *Begiak lekuko* (2012) eta *Galdemoduen trilogia* (2017).

40 urteak ongi beteak izan arte ez dio Haur Literaturari ekin. Lehenbizi, 2016az geroztik, itzultzaile gisa; ondotik, egile moduan: *Amets anfibio* (2018) eta *Torlojuak* (Txabi Arnal Gilekin batera, 2018).

Zutabegile gisa egindako lanarekin lotuak daude liburu honetako kronikak.

